

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **92/2022 Mozioa, azaroaren 9koa, pertsona nagusientzako Oiongo foru-egoitzako erizaintza-laguntzaileen plantillari buruzkoa**

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko azaroaren 9an egindako osoko bilkuran, mozio hau onetsi zuten:

92/2022 Mozioa, azaroaren 9koa, pertsona nagusientzako Oiongo foru-egoitzako erizaintza-laguntzaileen plantillari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote txosten bat egin dezala pertsona nagusientzako Oiongo foru-egoitzako erizaintza-laguntzaileen kategoriako langileen ratioari buruz, eta txostena eta haren ondorioak helaraz diezazkiela Batzar Nagusiei.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote egoiliarrei kalitatezko zaintza emateko behar diren laguntza teknikoak berma ditzala.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 9a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**